


Eraikuntzaren kostuek Euskal AEn % 0,6 egin zuten gora 2019ko apirilean, aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearekin alderatuta, 2019ko apirila 2018ko apirilaren alderatuta, kostuek % 3,0 egin zuten gora

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizeak % 0,6 egin zuen gora 2019ko apirilean, aurreko hilarekin erkatuta, eta hil horretarako urte arteko tasak % 3,0 egin zuten gora, EUSTATEk emandako datuen arabera.



Aurreko hilaren aldean, eskulanaren kostuak ez zuen aldakuntzarik izan (% 0,0) eta lehengaien kostuak % 0,8 egin zuten gora.

Aurtengo apirilean, Eraikigintzaren azpisektoreak % 0,6ko igoera izan du bere lehengaietan, eta Obra Zibilaren azpisektoreak, % 1,4ko igoera. Urte arteko bilakaeran, bi azpisektore horiek ere zeinu bera dute; izan ere, Eraikigintzako lehengaien kostuek % 2,9 egin dute gora, eta Obra Zibilarenek % 4,7.

Igoera handienak izan dituzten sektoreek kontsumitutako lehengaien prezioen artean, 2019ko apirilean 2018ko apirilaren aldean, nabarmentzekoak dira honako sektore hauek: *Petrolio fintzea* (% 10,6ko igoera), *Energia elektrikoa* eta *Gasa* (% 8,0ko igoera) eta

Mineral ez metalikoak (% 5,4ko igoera). Ordea, azken hamabi hilabeteotan, beren lehengaien prezioetan murrizketa handienak edo igoera txikienak izan dituzten sektoreak honako hauek izan dira, besteak beste: *Metalurgia* (% 2,4ko beherakada), *Kautxua eta plastikoa* (% 0,2ko igoera) eta *Makinak* (% 1,0eko igoera).

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2019ko Apirila

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	105,6	0,6	3,0	2,6
Eraikinak	105,4	0,5	2,8	2,3
Obra zibila	106,6	1,0	4,1	3,6
LEHENGAI	105,4	0,8	3,3	2,7
Eraikinak	105,1	0,6	2,9	2,4
Obra zibila	106,8	1,4	4,7	4,0
LAN-ESKUA	106,2	0,0	2,3	2,3

Oinarria 2015=100
 (p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62